



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMEN ONDASUN ETA
ZERBITZUEN KONTUA
2023**

Ohar metodologikoa

2025eko azaroaren 28

Gaur 2015etik 2023ra bitarteko urteetarako argitaratzen ditugun seriea eguneratutako Kontu Ekonomikoen zifra berriak hartzen dute kontuan. Kontu ekonomikoen datuak 2022ko Oinarriko zenbatespen berrien arabera egin dira eta balio erantsiari eta lanaldi osoko enplegu baliokideari (DOB) buruzko informazio eguneratua barne.

Gainera, Ingurumeneko Ondasun eta Zerbitzuen Kontuak berak, Eurostatek emandako gomendioen eta Europako Batzordeak 2015etik egindako arau-berrikuspenen arabera (2015/2174 (EB) Erregelamendua), metodologia berriak ezartzen ditu ingurumen-domeinu bakoitzerako, eta ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen eta jarduera ekonomikoen zerrenda zabaltzen du (2024/1769 (EB) Erregelamendua).

Bestalde, 2025/1131 (EB) Erregelamenduak, Europako Ingurumeneko Kontu Ekonomikoei buruzko 691/2011 (EB) Erregelamendua ere aldatzen duenak, Ingurumen-Helburuen Araberako Sailkapen berri bat (IHS) sartzen du, datuak biltzeko eta kontu hori egiteko eta zabaltzeko.

IHS sailkapen berria jarduera ekonomikoen, produktuen, gastuen eta ingurumena babestearekin eta eragile ekonomikoek (sektore instituzionalak) egindako baliabide naturalen kudeaketarekin lotutako beste transakzio batzuen sailkapen orokor eta funtzional bat da, sailkapen estatistikoaren nazioarteko irizpideetan oinarrituta. IHSk sailkapen orokor bakar batean biltzen ditu Ingurumena zaintzeko jardueren sailkapena (CAPA 2000) eta Baliabideak kudeatzeko jardueren sailkapena (BKJS 2008), horiekin zuzeneko lotura baitu (talde-mailan, 4 digitutan) eta horiek ordezkatzeko baititu.

IHS sailkapena hiru mailatan egituratzen da:

- dibisioa (edo ingurumen-eremua), 2 digituko desagregazioarekin, ingurumena babesteko eta baliabideak kudeatzeko jardueren kategoria homogeneoak biltzen dituena;
- taldea, 4 digituko desagregazioarekin, ingurumena babesteko eta baliabideak kudeatzeko jarduerak bereizten dituena; eta,
- klasea, 6 digituko desagregazioarekin, jardueren, produktuen eta gastuen buruzko xehetasun gehiago eskaintzen duena.

Europako araudiak EBko estatu kideentzat informazioa argitaratzeko derrigortasuna planteatzen du: 01, 06 eta 08 IHSetan ingurumen-helburuak dibisio-mailan (ingurumen-eremuaren arabera) argitaratu behar dira; gainerako ingurumen-helburuak, aldiz, talde-mailan hedatu behar dira. Eustatek bere egiten du EBko estatu kideetarako argitaratze-betebehar hori, 07 IHSan (Ikerketa eta garapena) izan ezik, dibisio-mailan zabalduko baitugu.

IHSk "ingurumen-helburua" irizpidea erabiltzen du ingurumen-jarduera ekonomikoak, ingurumen-produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) eta ingurumen-gastuak sailkatzeko, ingurumena babesteari dagokionez lortu nahi diren helburu nagusiaren arabera, hau da, produkzio-jarduerak egiten dituen, produktu bat (ondasuna edo zerbitzua) eskuratzen duen edo gastu bat egiten duen eragilearen motibazio nagusiaren arabera, haren ondorioak edo inpaktuak alde batera utzita.

Praktikan, ordea, motibazioa bereiztea zaila da. Jarduera ekonomiko asko hainbat helbururekin egiten dira, bai ingurumenekoak, bai ingurumenekoak ez direnak. Helburua zehazteak interpretazio-maila jakin bat ekar dezake, denborarekin aldaketak izan ditzake edo herrialdeen artean alderagarri guztiz ez izan.

Aurreko guztiaren ondorioz, informazio-iturriak eta zenbatespen-metodoak berrikusi dira, eta zenbatespenak hobetu egin dira. Horrek eragin berezia izan du sektore garrantzitsuetan, hala nola Energiari, Motorraren eta bere laguntzaileen industriari, Materialen berreskurapenean, I+Gn eta Herri-administrazioetan. Era berean, informazioa ingurumen-helburuen araberrako sailkapen berrian (IHS) ezarritako irizpideen arabera zabaltzeak informazio-premia politikoak, erabiltzaile potentzialen informazio-beharrak eta ingurumen- eta klima-erabilera desberdinak asetzen ditu.

Lehenengo eta behin, 2022ko eta 2023ko Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen konturako behin betiko datuen zenbatespena egin da, aipatutako metodologia- eta hedapen-irizpide berrien arabera. Ondoren, 2015-2021 serieko datuak berrikusi dira, irizpide berri horien arabera.

2022rako oinarri-aldatzearekin lotutako aldaketek eta metodologia-aldaketek datu-serie homogeneo bat ekarri dute Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontuko 2015-2023 urteetarako. Metodologia-hobekuntzek eta oinarri-aldaketak 2021erako eta 2022(aurrerapen)rako argitaratutako datuen balioen beheranzko zuzenketa ere ekarri dute ekoizpen, balio erantsi eta enplegu mailetan.